

Funtsezko elkarteak

Studify aplikazioa garatu dadin, ezinbestekoa da beste elkarteekin lanean aritzea arlo ezberdinetako jakintza batzeko, **sinergia gauzatuz**, gure aplikazioa ahalik eta hobeena prestatuta egoteko. Ondorengo erakunde publiko eta pribatuak dira aipagarrienak:



1. **Hezkuntza-sektoreari** dagokionez, unibertsitateekin, ikastetxeekin eta irakasleen elkarteekin elkarlanean aritzea funtsezkoa izango da aplikazioa ezagutarazteko eta onarpena lortzeko. Horrez gain, honen bidez informazio zehatza eskuratuko dugu hezkuntza adituengandik eta horrek gure aplikazioaren zehaztapenari begira, izugarri lagungarria izango litzateke.



2. **Teknologia-alorrean**, adimen artifizialean espezializatutako enprekin (OpenAI, Google AI) elkarlana egitea beharrezkoa izango da tutore birtuala garatzeko. Era berean, AWS edo Azure bezalako hodei-zerbitzu hornitzaileekin lankidetzak bermatuko du azpiegitura eraginkorra izatea, eta datuen segurtasuna bermatzeko enpresa espezializatuak aliatu ezin hobeak izango dira.

3. **Psikologiaren arloan**, beharrezkoa ikusten dugu psikologo kabinete batekin harremanak sortzea ikasleen egonkortasun emozionala bermatzeko. Adituen arabera, osasun emozionala inpaktu zuzena du ikasketetako emaitzetan. Beraz, gure konpainiaren aldetik, arazo horri aurre egitea ezinbestekoa ikusten dugu. Beraz, gure konpainiaren aldetik, arazo horri aurre egitea ezinbestekoa ikusten dugu.



Aplikazioaren barruan, psikologoek zerbitzuak eskaintzeko aukera emango dugu. Modu honetan, ikasleek emozioak kudeatzeko eta antolaketa pertsonalerako laguntza eraginkorra eskuragarri izango lukete.

4. Azkenik, albisteak eta baliabideak eskaintzeko, hezkuntza-komunikabideekin eta bekak edo aukeraakademikoak eskaintzen dituzten plataformekin hitzarmenak egitea komenigarria da. Gainera, erabiltzaileen iritzia eta proposamenak jasotzea asebate inkesten bidez, garrantzitsua izango da aplikazioa etengabe hobetzeko.

